

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Goldman Sachs-ek urrea atera die “subprime” ei

Estatu Batuetan etheen prezioak hondoratzen ari dira, askok beren bizilekua galdu behar dute hipotekari aurre egin ezinik, burtsa ahulduta dabil... eta bitartean hiru artekarik 4.000 milioi dolar irabaziarazi dizkiote Goldman Sachs multinazionalari, berentzako sekulako eskupekoa lortuz.

SUBPRIME MOTAKO HIPOTEKEN KRISIA hilgarria suertatu da askorentzako. Etxea galdu dutenentzako edo laster enkantean ikusteko arriskuan direnentzako, horientzat seguru. Baina berme gutxiko hipoteken gainean etekinak sortzeko banku eta klase guztietako funtsek arkitektura sofistikatuak zeukaten antolatuta, eta udatik hona finantzen mundu osoa astindu du *subprime*en porrotak sortutako tirainak.

Hondamendiaren erdian –eta ez ahaztu oraindik bankuek beren galeren %25 baino ez dutela aitortu, ekonomia-ko agintariak abisatu dutenez– finantzetako enpresa erraldoi gehienek galerak bildu dituzten hilabete gorrietan, Goldman Sachs korporazioak aspaldiko irabazirik handienak eskuratu ditu. Azaroaren 30ean bukatzen zitzaion urte fiskalean 11.500 milioi dolar irabazi zituela deklaratu zuen, horietatik ia 4.000 milioi azken hiruhilabetekoan. Alegia, konpetidore gehienek galerak egin dituzten hilabeteetan. Eta honetan datza albistearen mamia: nolaz lortu du balentria hori Goldman Sachs-ek?

Erantzuna apustueta datza. Labur esanda, urte hasieratik diru asko jakatu zuelako aukera honen alde: baietz *subprime* hipotekak porrot egin. Gezurra dirudien arren, jokoan oinarritzen baita burtsan mugitzen den aberastasunaren zati handi bat.

Burtsan saldu eta erosten diren finantz produktu eratorrien artean,

bada bat *swap* deitzen dena. “Trukea” esan nahi du ingelesez baina mundu osoan *swap* deitzen zaio, baita frantsesez eta gaztelaniaz ere. Gaztelaniazko Wikipedian honela definitzen dute: kontratu bat da, zeinetan bi aldeek adosten duten dirutza jakin batzuk trukatzeko etorkizunean. Gehienetan etorkizuneko diruok lotuta daude interes tasa, baina oro har *swap* deitzen zaio edozein aldagari lotuta gero data jakin baterako adosten den salerosketari. Apustuari alegia, zeren eta denborarekin gauzak nola doazen –interesa tasak edo neurritzat hartu den beste edozein aldagai– bietatik bat izango baita irabazle, eta bestea galtzaile.

Aldagai horietako bat *subprime* hipoteken egoera zen. Aspalditik kutxa eta bankuek espekulazioa egin dute herriarrok etxebizitza erosteko erosten genien hipotekazko kredituarekin. Gutako bakoitzak zorra hamabost, hogeie edo hogeie urterako hartzen genuenez, bankuek zor horiek –berme moduan ipini ditugun etxeak barne– beste bezero batzuei saltzen zizkieten, eta hauek askotan harantzagoko beste batzuei... katea luzatuz. Etxebizitzaren prezioek beti gora egiten zuten, txarrenean ere hipoteka exekutatu eta hala ere dirua egiteko itxaropenean.

AEBetako hipoteka ustelak –zerbaitengatik deitu zaie “zabor hipotekak”– gainbehera hasteko lehen kei-

nuak egiten hasi zirenean, banku eta finantz korporazio handiek ekin zioten arriskuak berdintzeko jokaldiak antolatzeari. Pilota partidaren tantoetan aurretik doana makaltzen hasten denean artekariak egiten duten gisan, badaezpada ere atzetik doanaren alde zerbait jokatu. Goldman Sachs-ek erdiz erdi asmatu du maniobra horretan diru asko jokatzean.

Hiru gizonen osatutako ekipa batek lortu du beren enpresari hiruhilekoan ia 4.000 milioi dolar irabaziarazi eta hiruetako bakoitzaren sakelera hamarna milioi eramatea. *The Wall Street Journal* egunkariak beren izenez aipatu arte ezezagunak ziren hiru *mousquetaire* hauek txiki utzi dute Georges Soros espekulatzailer famatuak 1992an lortutakoa, honek orduan libra esterlinaren kontra apustu eginez ez baitzuen 1.100 milioi dolar “baizik” irabazi.

Akziodunak versus bezeroak

*The Wall Street Journal*en Kate Kellyk eta *The Independent*en Stephen Foleyk idatzi dutenetik jakin dugu azken urteotan finantzetako korporazioak oso daudela kezkatuta beren inbertsioen arriskuez. Kolpe handiak jasan izan dituzte oso erabaki lanjerosak gizaki bakarren eskuetan zirelako, etekin handiak ematen dituzten espekulazio operazioetan. Denek aipatzen dute Nick Leeson. Barings Bank diruetxean, Singaporen, espe-





Argazki txikian Goldman Sachsentzako New Yorken Cesar Pelli arkitektoa eraikitzen ari den egoitza futurista berria. Handian, Northern Rock banku ingeleseko bezeroak Londresko bulego baten atarian dirua aterako zain, irailaren 14an, justu Gobernuak eskatu zienean denak ez joateko batera diru bila. *Subprime* hipoteken porrotak estuasunean ipinitako lehen bankua izan zen Northern Rock. Hilabete gutxi lehenago, Goldman Sachseko artekariak hipoteka ustel horien bermea zuten bono eta bestelako produktuak saltzen zizkieten bezeroei, eta bitarte horretan, korporazioko ekipo txiki bat enpresaren diru asko ari zen jokatzeko kontrako apustuan: baietz hipoteka horiek errekaratuko joan. Bezero askok dirutzak galdu dituzte, eta aldiz Goldman Sachs lehen baino aberatsago egin dute.

kulaziozko salerosketan ari zen eta nagusiak konturatu zirenerako ordu-ra arte irabazi handiak eman zizkien gizonak kolpe batean 827.000 milioi libra galdu eta bankua errekaratuko eman zuen. Horrelako porrot gehiago izan dira gero ere.

Goldman Sachs korporazioan Dan Sparks, Josh Bimbaum eta Michael "Sweeny" Swenson buru zituen ekipoa indartu zuten, sistema informatiko sofistikatuak lagunduta enpresaren arriskuak uneoro neurtu eta horiek orekatzeko operazioak antolatzen.

Ekipo honen meritua izan omen da *subprime* motako hipoteketan arazoak —ordaindu ezinak, alegia— hasi bezain azkar ohartzeko etor zitezkeen krisiaren sakonaz. Goldman Sachs gero eta diru gehiago joan zen jokoan jartzen,

orduan inork gutxi sinetsi zezakeen egoera baten aldeko apustua eginez: baietz mota honetako hipoteken prezioek behera egin.

Beste banku eta finantz korporazioek ere jokatu izan dute dirua nora bide berean, eta honek lagundu die udaz geroztik etorri diren galerak hein batean xukatzen, baina inork ez zuen Goldman Sachsek bezain ausart jokatu. *The Wall Street Journal*ek meritua egotzi die izarretik izarera lana beltz egin duten hiru exekutiboek, negozioetarako usaimen fina, tresna informatiko puntakoa sortzeko trebezia eta bankuetan kontserbadoreak izan ohi diren buruzagiak konbentzitzeko adorea eduki dutelakoan.

Beste batzuek, aldiz, mesfidantza handiagoz begiratzen diote Goldman

Sachsek lortutako mirakuluari. Ala udatik honantz galerak aitortu beste biderik izan ez duten gainerako erraldoiak zozoagoak ote dira, bada? Ez ote du korporazioko artekari bizkor horien punteria onak zerikusirik Goldman Sachseko lehengo lehendakari Hank Paulson orain George Bushen Ogasun sailburu izatearekin? Zeren eta Paulson, onenean ere, enpresan dituen akzioen prezioak goraka ikusi ditu, kreditu usteleki aurre egin ezin dieten herritar asko etxea galtzeko zorian diren bitartean.

Badu gai honek beste alderdi istilutsua. Honela formulatu du *The Wall Street Journal*en Kate Keelyk: "Goldmanen garaipenak *subprime*en porrotari irabaziak ateratzerakoan behartzen gaitu galdetzeraz ea nola orekatzen dituen korporazioak alde batetik bere akziodunekin dituen erantzukizunak eta bestetik bezeroekin dituenak. Goldmanen hipoteka departamenduak jarraitu zuen saltzen *subprime*etan eta bestelako kredituetan oinarritutako bono, CDO eta bestelako balore konplexuak. Balore hauek 2007an hondoratu direnean, Goldmanen bezero askok sekulako galerak nozitu dituzte. (...) Zergatik eskaintzen zizkien Goldmanek balore horiek bere bezeroei, bitarte horretan etxeko artekari batzuk balore horien hondoratzearen aldeko apustuak egiten ari zirenean?" *The Independent*ek tituluarekin erantzun dio: "\$4 bn killing". Killing: altxorra eta hilketa. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.

Konfiantza delako garrantzitsuena

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, etengabe produktu berriak eta zerbitzu berriak bilatzearen bidez.

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 4 - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL: 943 420 624